# Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

# Boletín Oficial de Gipuzkoa

2009ko martxoaren 31a, asteartea
60. zenbakia

Martes 31 de marzo de 2009
Número 60


## LABURPENA — SUMARIO


*Orrialdea*

7 **Udal Administrazioa** ........................................ **10.187**

*Página*

7 **Administración Municipal** ........................................ **10.187**


## 7 UDAL ADMINISTRAZIOA / ADMINISTRACION MUNICIPAL 7

### TOLOSAKO UDALA

*Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren behin betiko onespena.*

*Dokumentua:* Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren Testu Bategina, 2009ko urtarrilekoa.

*Sustatzailea:* Tolosako Udala.

*Behin betiko onespena:* Tolosako Udalbatzak, 2009ko martxoaren 3an egindako ohiko bilkuran hartutako erabakiaren bitartez.

Planeamenduko erregistroan aurkezpena: 2009ko martxoaren 6an.

Behin betiko onespeneko erabakiaren testua:

2003ko uztailaren 29ko Ebazpenaren bidez, Udalak Tolosako Arau Subsidiarioak berrikusteko prozesua hastea adostu zuen.

2005eko ekainean, Plan Orokor berria egiteko lehenengo fasea burutu zen, ondoko dokumentua idatzi ondoren: «Informazioa eta diagnostikoa. Tolosako plangintzako arau subsidiarioen berrikuspena».

Dokumentu honen edukia 2005eko uztailaren 8an eta 9an herritarren parte-hartze jardunaldietan egindako ekarpenekin osatu zen. Ekarpen horiek «Tolosako Arau Subsidiarioak berrikusteko parte-hartze prozesua» izeneko behin-behineko txostenean jaso ziren.

Ondoren, 2005eko azaroan, aipaturiko Arau Subsidiarioen berrikuspenarekin, «(Aurre) Aurrerapena» izeneko dokumentu berria egin zen.

### AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

*Aprobación definitiva del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa.*

*Documento:* Texto Refundido del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa de fecha enero de 2009.

*Promotor:* Ayuntamiento de Tolosa.

*Aprobación definitiva:* Por acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, adoptado en sesión ordinaria celebrada el día 3 de marzo de 2009.

Presentación en el registro de planeamiento: 6 de marzo de 2009.

Texto del acuerdo de aprobación definitiva:

Mediante Resolución de 29 de julio de 2003, el Ayuntamiento acuerda iniciar el proceso de revisión de las Normas Subsidiarias de Tolosa.

En junio de 2005 se completa la primera de las fases de elaboración del nuevo Plan General con la redacción del documento de «Información y Diagnóstico. Revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Tolosa».

El contenido de este documento ha sido enriquecido con las aportaciones realizadas en las jornadas de participación ciudadana de los días 8 y 9 de julio de 2005, recogidas en el informe provisional denominado «Proceso participativo de la revisión de las Normas Subsidiarias de Tolosa».

Posteriormente, con fecha noviembre de 2005 se elabora un nuevo documento denominado «(Pre) Avance» de la revisión de las citadas Normas Subsidiarias.

Aipaturiko «(Aurre) Aurrerapena» herritarren parte-hartze prozesuaren mende jarri zen, 2005eko abenduaren 16an eta 2006ko urtarrilaren 13an eta 14an egindako lan jardunaldietan.

Aurretik adierazitako irizpideekin, dokumentuaren aurrerapena 2006ko otsailean idatzi zen eta, urte bereko martxoaren 28an, jendaurrean 30 egunez erakustea adostu zen, proposamenak eta ekarpenak egiteko.

Guztira 27 iradokizun aurkeztu ziren. Iradokizunak 2006ko ekainean egindako «Tolosako Plangintzako Arau Subsidiarioak Berrikusteko Aurrerapenari erakusketa publikoko denboraldian aurkeztutako iradokizunei buruzko txostenean» aztertu eta erantzun ziren.

2006ko uztailaren 27an egindako osoko bilkuran, Tolosako Udalak Aurrerapenean adierazitako helburuak eta irizpideak berrestea adostu zuen.

Geroago, 2007ko maiatzaren 8ko osoko bilkuran, honakoak adostu zituen Tolosako Udalak, besteak beste:

«1. 2007ko apirilean egindako Tolosako Hiria Antolatzeko Plan Orokorrari hasierako onarpena ematea, hainbat baldintzaren pean.

2. Aipatutako Plana lau hilabetez jendaurrean jartzea, gehienez ere 2007ko irailaren 30era arte, hala dagokionak alegazioak aurkezteko.

3. Bi urteko epean edozer onarpen, baimen eta lizentzia mota ematea bertan behera uztea, aurreikusitako zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza araubidean aldaketa ekarriko duten eremuetan.

4. Hasierako onarpena sektorean eskumenak dituzten administrazio publikoei jakinaraztea, jakinaren gainean izan daitezen».

Jendaurrean jarri izanaren berria 2007ko maiatzaren 29ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen (105. zk), bai eta El Diario Vasco, Berria eta Hitza egunkarietan ere, 2007ko maiatzaren 30ean eta 31n.

Erabaki hori hainbat administraziori ere jakinarazi zitzaien; besteak beste, udal batzuei (Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Araitz Bailara, Berastegi, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Legorreta, Lizartza, Orexa eta Villabona), Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkaritzari, Sustapen Ministerioko Trenbideen Zuzendaritza Nagusiari, Espainiako Iparraldeko Ur Konfederazioari, ADIFeri, Gipuzkoako Foru Aldundiko zenbait sailei (Bide Azpiegiturak, Garapen Iraunkorra, Mugikortasuna eta Lurralde Antolamendua, eta Landa Ingurunearen Garapena), eta Eusko Jaurlaritzako zenbait sailei (Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerkuntza; Garraioa eta Herri Lanak; Ingurumena eta Lurralde Antolamendua; Industria, Merkataritza eta Turismoa; Ogasuna eta Administrazio Publikoa; Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura; Osasuna, Etxebizitza eta Gizarte Gaiak).

Aipatutako jendaurreko epe horretan 128 alegazio idazki aurkeztu ziren.

2007ko azaroan, aurkeztutako alegazioen balorazioa jasotzen zuen txosten teknikoa egin zuen plana idatzi zuen lantaldeak, eta hasieran onartutako dokumentuarentzako hainbat zuzenketa eta osagarri proposatu zituen.

Bestalde, Tolosako Papelera de Amaroz, SA enpresak paperaren sektoreko zailtasunek eraginda bizi duen egoera zailak eskatzen du enpresa horren jabetzakoak diren lursailen hirigintza araubidea berriz aztertzea, enpresak Legorretako Paperalia, SA enpresara (likidazioan) lekualdatzerakoan, aurrera jarraitzeko aukera izan dezan.

Dicho «(Pre) Avance» es sometido al proceso de participación ciudadana durante las jornadas de trabajo realizadas los días 16 de diciembre de 2005, y 13 y 14 de enero de 2006.

Con los criterios anteriormente expuestos se redacta el Avance del documento, en febrero de 2006, acordandose el 28 de marzo de ese mismo año su sometimiento a exposición pública durante un período de 30 días, para la formulación de las sugerencias y aportaciones oportunas.

Se presentan un total de 27 sugerencias, que han sido analizadas y respondidas en el «Informe referido a las sugerencias presentadas en el período de exposición pública del Avance de la revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Tolosa», elaborado en junio de 2006.

En sesión plenaria celebrada el 27 de julio de 2006, el Ayuntamiento de Tolosa acuerda ratificar los objetivos y criterios expuestos en el Avance.

Más adelante, en sesión plenaria celebrada el día 8 de mayo de 2007, el Ayuntamiento de Tolosa acuerda, entre otros extremos:

«1. Aprobar inicialmente, con diversas condiciones, el Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa, elaborado con fecha abril de 2007.

2. Someter el citado Plan a exposición pública por un plazo de cuatro meses, a finalizar, en cualquier caso, el 30 de setiembre de 2007, a efectos de presentación de alegaciones.

3. Suspender por el plazo de dos años el otorgamiento de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias en los ámbitos en los que las nuevas determinaciones previstas supongan modificación del régimen urbanístico vigente.

4. Notificar la aprobación inicial, para su conocimiento e informe, a las Administraciones públicas con competencias sectoriales».

El preceptivo anuncio de exposición pública se publica en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 105, de 29 de mayo de 2007, y en los periódicos, Diario Vasco, Berria e Hitza, los días 30 y 31 de mayo de 2007.

Además, el acuerdo adoptado se notifica a diversas Administraciones, entre ellas, a los Ayuntamientos de Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Araitz Bailara, Berastegi, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Legorreta, Lizartza, Orexa y Villabona; a la Subdelegación del Gobierno en Gipuzkoa, a la Dirección General de Ferrocarriles del Ministerio de Fomento, a la Confederación Hidrográfica del Norte de España, a ADIF, a los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa de Infraestructuras Viarias, de Desarrollo Sostenible, de Movilidad y Ordenación del Territorio y de Desarrollo del Medio Rural; y a los Departamentos del Gobierno Vasco de Educación, Universidades e Investigación, de Transportes y Obras Públicas, de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, de Industria, Comercio y Turismo, de Hacienda y Administración Pública, de Agricultura, Pesca y Alimentación, de Sanidad, y de Vivienda y Asuntos Sociales.

Durante el citado período de exposición pública se presentan 128 escritos de alegaciones.

Con fecha noviembre de 2007 el equipo redactor del Plan elabora el informe técnico de valoración de las alegaciones presentadas y propone algunas correcciones y complementos al documento aprobado inicialmente.

Por otro lado, la delicada situación de la empresa Papelera de Amaroz, S.A., sita en este municipio, derivada de las dificultades generales del sector, aconseja la reconsideración del régimen urbanístico de los terrenos de su propiedad, a fin de lograr una oportunidad de futuro en el traslado de su actividad a las instalaciones de Paperalia, S.A., (en liquidación) en el municipio vecino de Legorreta.

«20. Amarotz» hirigintza eremua antolatzeko proposamen berriak hasieran onartutako Plan Orokorrean aldaketak egitea eskatzen du. Aldaketa horiek, besteak beste, hirigintza eremu hauei dagozkie: «19. San Blas» hirigintza eremuari eta, zehatzago, «19.2 Zumain» azpieremuari, «16. Eskolapioak» hirigintza eremuari, «21. Papelerak». Izan ere, azken hori Amarotzeko paper fabrikari lotutako aipatutako lursailetatik kanpo utzi baita. Udalerriko gune libre orokorren sarea taxutzeko proposamenak aldatzea ere komeni da.

Gainera, hasieran onartutako planean sartzeko beste aldaketa batzuek hasierako planean proposatutako egiturazko antolaketan aldaketa nabarmenak egin beharra ekarriko du.

Horrek guztiak justifikatu egiten du 2008ko martxoan aipatutako Planaren dokumentu osagarria egin izana. Egindako aldaketak ere planean sartu ziren, berriro jendaurrean jartzeko.

2008ko apirilaren 29an egindako ohiko bileran, honakoa erabaki zuen Udalbatzak:

«1. Plana jendaurrean jarritakoan jasotako alegazioak ebaztea.

2. Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorra behin-behinean onartzea, hainbat aldaketa egin ondoren.

3. 2008ko martxoko Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren dokumentu osagarriari hasierako onarpena ematea eta dokumentu hori hilabetez jendaurrean jartzea».

2008ko maiatzaren 5ean Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta 2008ko maiatzaren 6an El Diario Vasco, Berria eta Tolosaldeko Hitza egunkarietan argitaratu ondoren, 22 alegazio idazki aurkeztu ziren jendaurrean jarritako epean.

Jendaurrean jarritakoan, gainera, honako txostenak ere jaso ziren:

1. 2008ko ekainaren 4an, Sustapen Ministerioarena; zehazki, Trenbideen Zuzendaritza Nagusiarena.

2. 2008ko ekainaren 6an, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saileko Landareen eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzarena.

3. 2008ko uztailaren 7an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko Bioadibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzarena.

Beste bi alegazio idazki ere aurkeztu ziren jendaurreko informazioa emateko lehenengo epea amaitu ondoren, baina ez ziren apirilaren 29ko akordioan ebatzi.

Plangintzako Aholku Batzordeak, 2008ko uztailaren 17an egindako bileran, baiezkoa eman zion Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorra behin-behinean onartzeari.

2008ko uztailaren 29an egindako ohiko bileran, honakoa erabaki zuen, besteak beste:

«1. 2008ko apirilaren 29an hasierako onarpena jaso zuen Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren dokumentu osagarriak jendaurrean jarritakoan jasotako alegazioak ebaztea.

2. Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren dokumentu osagarria behin-behinean onartzea, hainbat aldaketa sartuta.

3. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 90. eta 91. artikuluen arabera, Plan Orokorraren izapideekin jarraitzea eta dokumentua Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordera igortzea, batzorde horrek, dokumentua behin betiko onartu baino lehen, nahitaezko txostena egin dezan.

La nueva propuesta de ordenación del Ámbito Urbanístico «20. Amaroz» requiere la introducción en el Plan General inicialmente aprobado de modificaciones en cascada, como son las relativas al ámbito urbanístico «19. San Blas», y, más en concreto, para el subámbito «19.2 Zumain», la del Ámbito Urbanístico «16. Escolapios», la del Ámbito Urbanístico «21. Papeleras», como consecuencia de la exclusión del mismo de los referidos terrenos vinculados a la papelera Amaroz, así como la modificación de las propuestas de configuración de la red de espacios libres generales del municipio.

Además, otras modificaciones a introducir asimismo en el Plan inicialmente aprobado conllevaban cambios sustanciales en la ordenación estructural propuesta en el mismo.

Todo ello justifica la elaboración, con fecha marzo de 2008, de un «Documento Complementario» del referido Plan al que se incorporaron las modificaciones objeto de nueva exposición pública.

El Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria celebrada el día 29 de abril de 2008, acuerda:

«1. Resolver las alegaciones presentadas en el período de información pública.

2. Aprobar provisionalmente el Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa, con una serie de modificaciones.

3. Aprobar inicialmente el Documento Complementario del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa, de fecha marzo de 2008, y someter el mismo a exposición pública por el plazo de un mes».

Efectuadas las publicaciones en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa (5 de mayo de 2008) y en los periódicos Diario Vasco, Berria y Tolosaldeko Hitza (6 de mayo de 2008), durante el período de información pública se presentan 22 escritos de alegaciones.

Además, durante el mismo período de información pública se reciben los siguientes informes:

1. El 4 de junio de 2008, del Ministerio de Fomento, concretamente de la Dirección General de Ferrocarriles.

2. El 6 de junio de 2008, de la Dirección del Desarrollo Rural y Litoral del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación del Gobierno Vasco.

3. El 7 de julio de 2008, de la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental del Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

Se presentaron asimismo otros dos escritos de alegaciones tras la finalización del primer período de información pública y que no fueron resueltas en el acuerdo adoptado el pasado 29 de abril.

El Consejo Asesor de Planeamiento, en sesión celebrada el día 17 de julio de 2008 da el visto bueno a la aprobación provisional del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa.

El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 29 de julio de 2008, acuerda, entre otros extremos:

«1. Resolver las alegaciones presentadas en el período de información pública de la Documentación Complementaria del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa, aprobada inicialmente por acuerdo de 29 de abril de 2008.

2. Aprobar provisionalmente el Documento Complementario del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa, con una serie de modificaciones.

3. Proseguir con la tramitación del Plan General conforme a los artículos 90 y 91 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo y elevar el documento a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, para que emita el informe preceptivo previo a la aprobación definitiva del mismo.

4. Plan Orokorraren behin betiko onarpena «19. eremua: San Blas»en egindako aldaketak jendaurrean jartzeko izapidea egitearen baldintzapean jartzea, 2008ko apirilaren 29ko osoko bilkuran onartutako behin-behineko dokumentua onartu ondoren.

5. Ingurumenarekiko eraginari buruzko behin betiko txostena eskatzea, uztailaren 23ko 183/2003 Dekretuko 20. artikuluak xedatutakoaren arabera. Dekretu horren bidez arautzen da ingurumenarekiko eraginaren baterako ebaluazioa egiteko prozedura».

2008ko abuztuaren 18an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzako Ingurumenaren Plangintza, Ebaluazio eta Kontrolerako Zuzendaritzari Hiri Ordenazioko Plan Orokorrari dagokion ingurumenarekiko eraginari buruzko behin betiko txostena eskatu zitzaion.

2008ko abuztuaren 21ean, Plan Orokorra Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari igorri zitzaion, batzorde horrek, plana behin betiko onartu baino lehen, nahitaez igorri beharreko txostena egin zezan.

Tolosako Udalak 2008ko uztailaren 29ko osoko bilkuran erabakitakoa betez, hilabetez jendaurrean jarri zen «19. San Blas» hirigintza eremuko arau partikular berria, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (2008-08-27), Berrian (2008-08-26) eta El Diario Vascon (2008-08-27) zegozkion iragarkiak argitaratuta. Ez zuen inork alegaziorik aurkeztu.

2008ko urriaren 10ean, informazio publiko horren inguruko dokumentazioa Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordera igorri zen.

2008ko urriaren 10ean, populazioari buruzko ziurtagiria bidali zitzaion Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari.

2008ko urriaren 28an, Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari honakoak igorri zitzaizkion:

* Plan Orokorrari hasierako onarpena eman zitzaionetik emandako eraikuntzako baimenen ziurtagiriak.

* 1.944/2008 Dekretuaren bidez onartutako «18. Apattaerreka» hirigintza eremuaren arau berezia eta dekretu horren ziurtagiria.

2008ko azaroaren 6an Ingurumen Sailburuordetzak hartutako ebazpenaren bidez, Udal honek sustatutako Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren ingurumen eraginei buruzko behin betiko txostena egin zen.

2008ko azaroaren 6an, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren espedientea mahai gainean uztea erabaki zuen, batzorde horren hurrengo osoko bilkuran Apattaerreka esaten zaion eremua uren sektoreko araudiaren ikuspegitik aztertzeko.

Ondorioz, plana idazteko ardura zuen taldeak hirigintza eremu horretako arau berezia aldatzea proposatu zuen.

2008ko abenduaren 18an egindako ohiko bileran, honakoa erabaki zuen Udaleko osoko bilkurak:

«1. Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorreko «18. Apattaerreka» hirigintza eremuko arau berezia aldatzeari hasierako onarpena ematea, Plan Orokor hori idazteko ardura duen lantaldeak prestatutako agirien arabera.

4. Condicionar la aprobación definitiva del Plan General a la realización del trámite de información pública de las modificaciones introducidas en el «Ámbito 19: San Blas» tras la aprobación provisional del documento adoptada en Sesión Plenaria celebrada el 29 de abril de 2008.

5. Solicitar la emisión del informe definitivo de impacto ambiental, a los efectos del artículo 20 del Decreto 183/2003, de 23 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental».

Con fecha 18 de agosto de 2008, se solicita informe definitivo de impacto ambiental en relación con el Plan General de Ordenación Urbana a la Dirección de Planificación, Evaluación y Control Ambiental de la Viceconsejería de Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

Con fecha 21 de agosto de 2008 se eleva el Plan General a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco a los efectos de la emisión por el mismo del correspondiente y preceptivo informe previo a la aprobación definitiva del mismo.

En cumplimiento de lo acordado por el Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, en sesión celebrada el día 29 de julio de 2008, se somete a exposición pública por término de un mes, la nueva Norma Particular del ámbito urbanístico «19. San Blas», mediante la publicación de los anuncios correspondientes en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa (27-08-2008), Berria (26-08-2008) y Diario Vasco (27-08-2008), sin que durante la misma se presente alegación alguna.

El 10 de octubre de 2008 se remite la documentación correspondiente a esta información pública a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

Con fecha 10 de octubre de 2008 se remite a la Comisión de Ordenación del Territorio del País certificación relativa a población.

Con fecha 28 de octubre de 2008 se remite a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco:

* Certificación acreditativa de las licencias de edificación concedidas en el período de tiempo transcurrido desde la aprobación inicial del Plan General.

* Norma Particular del ámbito urbanístico «18. Apattaerreka», aprobado por Decreto 1.944/2008, junto con la certificación del decreto mencionado.

Mediante resolución de 6 de noviembre de 2008, de la Viceconsejería de Medio Ambiente, se formula informe definitivo de Impacto Ambiental del «Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa» promovido por este Ayuntamiento.

Con fecha 6 de noviembre de 2008, la Comisión de Ordenación del Territorio de País Vasco acuerda dejar sobre la mesa el expediente de Plan General de Ordenación Urbana, únicamente a fin de analizar particularmente en el próximo pleno de esa Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco el ámbito denominado Apattaerreka desde la perspectiva de la normativa sectorial de aguas.

Ello motiva que por parte del equipo redactor se proponga la modificación de la norma particular del citado ámbito urbanístico.

El Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria celebrada el día 18 de diciembre de 2008, resuelve:

«1. Aprobar inicialmente la Modificación de la Norma Particular del ámbito urbanístico «18.Apattaerreka» del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa, según documentación elaborada por el Equipo Redactor de dicho Plan General.

2. Espedientea hilabetez jendaurrean jartzea.

3. Sektorean eskumenak dituzten herri administrazioei eta udalerri mugakideetako udalei onarpenaren berri ematea.

4. Aipatutako aldaketa behin-behinean onartutzat ematea eta Plan Orokorrean sartzea behin betiko onartua izan dadin, baldin eta alegaziorik aurkezten ez bada».

Espedientea jendaurrean jarri zen, ondorengo hedabideetan argitaratutako iragarkien bidez: Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA (2009-01-09), Berria, El Diario Vasco eta Tolosaldeko Hitza (2008-12-23).

Gainera, akordioaren berri eman zaie sektoreko eskumenak dituzten herri administrazioei eta mugakide diren udalerrietako udalei.

2009ko otsailaren 2ko idatziaren bidez, Sustapen Ministerioak (Trenbideen Zuzendaritza Nagusia) jakinarazi zuen zuzendaritza horrek ez daukala aurreikusita epe motzean edo ertainean Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren arau berezi honi eragin diezaiokeen ekintzarik egitea; horregatik jakinarazi zuen, bidalitako agiriak ikusita, ez zirudiela izapideekin jarraitzeko eragozpenik zegoenik.

Ondorioz, eta 2008ko abenduaren 18ko osoko bilkurako hartutako akordioko 4. atalean xedatutakoa betez, «18. Apaterreka» hirigintza eremuaren arau berezia behin-behinean onartuta gelditu zen.

Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak urtarrilaren 22an Gasteizen egin zuen 1/2009 bileran, 2/2006 Legeko 91. artikuluan aurreikusitako txostena igorri zuen Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren harira.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak 2009ko urtarrilaren 22an emandako aginduaren bidez, baimena ematen da Tolosako hiri ingurune osoan etxebizitza babestuen inguruan legeak ezarritako estandarra betetzeko. Honakoak betez eman da baimen hori: Euskal Herriko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 80.6 artikuluan aurreikusitako prozedura, eta aipatutako legea garatzen duen 105/2008 Dekretuko 26.1 artikulua.

Horrela, ikusita plana idazteko ardura duen lantaldeak 2009ko urtarrilean prestatutako Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren testu bategina.

Ikusita honen gainean egindako txostenak, espedientean jasota daudenak, eta bat etorriz Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 91. eta 89. artikuluetan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 22.2 c) eta 47.2 ll) artikuluetan xedatuarekin, Udalbatzak, gehiengoz, hau da, Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengo absolutuarekin, eta EB-Aralar taldeko ordezkariaren aurkako botoarekin,

ERABAKI DU

*Lehena:* Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorra –erredaktore taldeak 2009ko urtarrilean idatzitako Testu Bateginean jasoa– behin betiko onartzea.

*Bigarrena:* Tolosako Udalbatzaren 2007ko maiatzaren 8ko Osoko Bilkuran erabakitako lizentzia etenaldiarekin amaitzea.

*Hirugarrena:* Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko Batzordeari behin betiko onarpen erabakia jakinaraztea.

2. Someter el expediente a exposición pública por término de un mes.

3. Notificar la aprobación a las administraciones públicas con competencias sectoriales y a los Ayuntamientos de los términos municipales colindantes.

4. Considerar aprobado provisionalmente la citada Modificación e incluirla en el Plan General para su aprobación definitiva, caso de no presentarse alegaciones».

El expediente ha sido expuesto al público mediante la publicación de los anuncios correspondientes en los siguientes medios. BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa (9-01-2009), Berria, Diario Vasco y Tolosaldeko Hitza (23-12-2008).

Además se ha dado traslado del acuerdo a la administraciones públicas con competencias sectoriales y a los Ayuntamientos de los términos municipales colindantes.

Por escrito de 2 de febrero de 2009, el Ministerio de Fomento (Dirección General de Ferrocarriles) ha informado que dicha Dirección no tiene planificada ninguna actuación a corto o medio plazo que pueda interferir con esta Norma Particular del Plan General de Ordenación Urbana, y por ello informa que, de acuerdo con la documentación enviada, no parece haber inconveniente para continuar con su tramitación.

En consecuencia, atendiendo a lo dispuesto en el apartado 4 del acuerdo plenario de 18 de diciembre de 2008, la Norma Particular del ámbito urbanístico «18.Apattaerreka» del Plan General queda aprobada provisionalmente.

En la sesión 1/2009 de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, celebrada en Vitoria-Gasteiz, el día 22 de enero, se emite el informe previsto en el art. 91 de la Ley 2/2006, en relación con el Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa.

Por Orden de 22 de enero de 2009, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco, se autoriza, de conformidad con el procedimiento previsto en el art. 80.6 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco y en el art. 26.1 del Decreto 105/2008 de 3 de junio, de Medidas Urgentes en desarrollo de la mencionada Ley, el cumplimiento global en el conjunto del medio urbano de Tolosa del estándar establecido en dicha Ley en materia de vivienda protegida.

Así pues, visto el Texto Refundido del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa, elaborado por el equipo redacto con fecha enero de 2009.

Vistos los informes emitidos al respecto y que obran en el expediente, y de conformidad con lo establecido por los art. 91 y 89 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, y el artículo 22.2 c) y 47.2 ll) de la Ley 7/85, reguladora de las Bases del Régimen Local, el Ayuntamiento Pleno, por mayoría, que supone la mayoría absoluta legal de los miembros que componen la Corporación, y con el voto en contra del representante de IU-Aralar,

ACUERDA

*Primero:* Aprobar definitivamente el Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa según el Texto Refundido redactado con fecha de enero de 2009 por el equipo redactor.

*Segundo:* Levantar la suspensión de licencias acordada por el Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, en sesión celebrada el día 8 de mayo de 2007.

*Tercero:* Notificar el acuerdo de aprobación definitiva a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

*Laugarrena:* Plan Orokorrari buruzko ingurumenarekiko eraginaren behin betiko txostenean (2008ko azaroaren 6koan) ezarritako baldintza betetzea. Baldintza horren arabera, Plana behin betiko onartu ondoren, alde batetik, hura Eusko Jaurlaritzaren ingurumen organoari igorri egin behar zaio eta, bestetik, honako alderdi hauek zehazten eta/edo biltzen dituen dokumentua egin behar da:

— Planean ingurumenaren gaineko alderdiak zer modutan sartu diren.

— Planean honako gai hauei emaniko tratamendua: Ingurumen ebaluazioaren azterketa; kontsulten emaitzak; ingurumenarekiko eraginaren behin betiko txostena; prozesuan sortu ahal izan diren desadostasunak.

— Onartutako plana hautatzeko arrazoiak, aintzat hartutako alternatibekin alderatuta.

— Planaren ingurumenarekiko eraginei segimendua egiteko hartutako neurriak.

— Aurretik aipatutako gaien inguruko laburpen ez-teknikoa.

*Bostgarrena:* Plana Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, Hirigintzako Planeamenduaren Administrazio Erregistroan jaso dezan.

*Seigarrena:* Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea behin betiko onarpen erabakiaren eduki osoa, Planaren hirigintza arauak eta lizentzien etetearen amaiera, adieraziz, era berean, Plan Orokorra Hirigintzako Planeamenduaren Administrazio Erregistroan jaso dela.

*Zazpigarrena:* Behin betiko onarpenaren erabakia egunkarietan argitaratzea.

*Zortzigarrena:* Dokumentua eta espediente administratiboa bidaltzea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordera.

*Errekurtsoak:* Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezake interesatuak Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau argitaratu edo, kasua bada, jakinarazi eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Hirigintza Arautegiaren testua, Udalbatzaren 2009ko martxoaren 3ko behin betiko onespen erabakira egokitua.

I ERANSKINA. Hirigintza Arau Orokorrak.

II ERANSKINA. Hirigintza Arau Partikularrak (Lehen zetia).

III ERANSKINA. Hirigintza Arau Partikularrak (Bigarren zetia).

Tolosa, 2009ko martxoaren 6a.—Alkatea. (2906)

AURRETIAZKO TITULUA

PLAN OROKORRAREN APLIKAZIOARI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Aplikazio-esparrua.*

Hiri Antolamenduko Plan Orokor hau Tolosako udalerrian aplikatzekoa izango da, indarrean jartzen denetik aurrera.

*2. artikulua. Indarraldi-baldintzak.*

1. Oro har, Plan Orokor honek eta bere proposamenek ordeztu eta indargabetu egiten dituzte, artikulu honetan zein

*Cuarto:* Proceder a la cumplimentación de la condición establecida en el informe definitivo de impacto ambiental del Plan General (emitido con fecha 6 de noviembre de 2008), conforme al cual, tras la aprobación definitiva del Plan se ha de proceder, por un lado, a su remisión al órgano ambiental del Gobierno Vasco, y, por otro, a la elaboración de un documento que determine y/o contenga:

— La manera en la que se han integrado en el Plan los aspectos ambientales.

— El tratamiento en el Plan de: El estudio de evaluación ambiental del mismo; los resultados de las consultas; el citado informe definitivo de impacto ambiental; las posibles discrepancias que hayan podido surgir en el proceso.

— Las razones de la elección del plan aprobado, en relación con las alternativas consideradas.

— Las medidas adoptadas para el seguimiento de los efectos ambientales del Plan.

— Un resumen no técnico referido a las cuestiones anteriores.

*Quinto:* Remitir el Plan a la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa para su deposito en el Registro Administrativo de Planeamiento Urbanístico.

*Sexto:* Publicar en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa el contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva, las normas urbanísticas del Plan y el levantamiento de la suspensión de licencias, con indicación de haberse producido el depósito del Plan General en el Registro Administrativo de Planeamiento Urbanístico.

*Séptimo:* Publicar el acuerdo de aprobación definitiva en la prensa diaria.

*Octavo:* Remitir el documento y el expediente administrativo correspondiente a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

*Recursos:* Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa, pudiendo interponerse contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación o, en su caso, notificación.

Texto de la Normativa Urbanística ajustada al acuerdo de Aprobación Definitiva del Pleno Municipal de 3 de marzo de 2009.

ANEXO I. Normas Urbanísticas Generales.

ANEXO II. Normas Urbanísticas Particulaes (Parte Primera).

ANEXO III. Normas Urbanísticas Particulaes (Parte Segunda).

Tolosa, a 6 de marzo de 2009.—El Alcalde. (2906)

TITULO PRELIMINAR

DISPOSICIONES DE CARACTER GENERAL REFERENTES A LA APLICACION DEL PLAN GENERAL

*Artículo 1. Ámbito de aplicación.*

Este Plan General de Ordenación Urbana será de aplicación, desde su entrada en vigor, en la totalidad del término municipal de Tolosa.

*Artículo 2. Condiciones de vigencia.*

1. Con carácter general, este Plan General y sus propuestas sustituyen y derogan, en las condiciones expuestas tanto en